

ASTEAZKENA

2022/06/29

10. urtea, 1.626. zenbakia

107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

«Oso garbi nuen deituz gero Austriara joango nintzela»

MARKEL PEREZ ETXARRI
MUSIKARIA



JON MIRANDA

Austriako Gustav Mahler Jugendorchester gazte orkestran parte hartuko du irurarrak; erdi mailako ikasketak amaitu berri ditu, eta oraindik erabaki gabe du etorkizunean zer egin nahi duen // 6

Parte hartze prozesua hondakin bilketari eta Larraitz auzoari buruz

Alegiako Udalak, herritarren hitza kontuan hartzeko, batzarrak egingo ditu eta ondoren informazioa herritarren eskura jarriko du; irailean hartuko dituzte behin betiko erabakiak // 2



ASIER IMAZ

SANPEDROAK

SORGINAK EKARRI DU FESTA

Asteasun sorginaren jaitsierak piztu du jai giroa, eta igandera bitarte ekitaldi ugari dituzte; Leaburun eta Urkizun ere hasiak dira festez gozatzen; gaur dute jaietako egun handia; Larraitzen, berriz, igandean dituzte ospakizunak // 4-5



zozketak



Atarikideentzat **liburu bat** dugu

Maixa Zugastiren
Atarian
liburua

Zozketetan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA - ADUNA - INFO@RZABALA.COM

943 69 07 74 • RZABALA.COM

Afariak
asteazkenetik larunbatera.
Bazkariak
ostiral eta larunbatetan.
Beste egunak:
kontsultatu.



Unai Iraola, Ingurumen batzordeko kidea eta Arantxa Irazusta alkatea, atzo, udaletxean eginiko agerraldian. E. MAIZ

Bi parte hartze prozesu jarriko ditu martxan Alegiako Udalak

Herritarren hitza kontuan hartu nahi du udalak, eta hondakin bilketa sistemaren berrikusketa eta Larraitz auzoko ekialdeko proiektua herritarrekin partekatuko ditu

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Datozen hilabeteetan Alegiako Udalak bi parte hartze prozesu jarriko ditu martxan. Alde batek, hondakin bilketa sistemaren berrikusketa egingo dute, eta bestetik, Larraitz auzoko ekialdeko hiritartzeko lanen proiektua izango da parte hartze prozesu bidez landuko dutena. Herritarrei «azken hitza» ematea dute helburu udal ordezkariak.

«Hartu beharreko erabakiak herritarrekin batera, eta ahalik eta adostasunik handienarekin hartzea da udalaren asmoa eta helburua», azpimarratu du Arantxa Irazusta Alegiako alkatea. Norabide horretan, bi prozesuak modu paraleloan garatu nahi dituzte.

Hasteko, herritarrekin batzarrek egingo dituztela eman du jakitera. Ondoren, informazioa herritarren eskura jarriko dute, eta uda osoan zehar, izan ditzaizketen iradokizunak edo zalan-

tzak argitzeko aukera izango dute herritarrek. Horretarako bide ezberdinak jarri dituzte alegiarren eskura: Alegia APP-a, *Alegia.eus* udaleko webgunea eta udaletxeko postontzia.

Irailean berriro gaiari helduko diotela esan du Irazustak, «behin betiko» erabakiak hartu ahal izateko.

HONDAKIN BILKETAZ

Hondakin bilketaren sistemaren berrikuspenerako hiru arrazoi hartu dituztela kontuan azaldu du. Lehenik eta behin, Tolosaldeko Mankomunitatearen bilketa zerbitzua egiten duen enpresaren kontratu amaiera dela eta, horrek dakarren plegu eta baldintza berrien aldaketa datorrela aurreratu du.

Horrez gain, bilketa sistema ezberdinen datuek orokorrean geldialdia izan dutela esan du Irazustak, «pandemiak areagotuta»; «ondorioz, berrikuspen baterako beharra ikusten dugu,

berriz ere, herritarrak kontzientziatzeko».

Parte hartze prozesu hau herritarren artean gaiaren inguruan egon daitezkeen «kezka edo ezinegonei» erantzun bat emateko aukera moduan ikusten du udalak.

LARRAITZEKIALDEA

Larraitz auzoko ekialdearen kasuan, berriz, Larraitz mendebaldearen hiritartze lanetan egin zen lanketa errepikatze asmoa dute; bertako esperientzia «oso modu positiboan» baloratu zen, dio Irazustak, eta «herritarrek ere horrela baloratu zuten».

Auzoko bizilagunez gain, eraberritze lanek eragiten dieten ikastetxeekin, guraso elkarteekin eta herritarrekin batera landuko dela proiektua baieztatu du Irazustak.

Herritarrei lanketa hauetan parte hartzeko deia luzatu die alkateak: «Denon artean erabaki hobe hartuko delako».

Jaien aurretik, beroketa festak Alegian

Antzerkia, musika eta kirola uztartuz Alegiako kultura batzordeak jaiak hasi bitarteko zubi izango den eskaintza prestatu du

E. Maiz Alegia

Karmen Jaiak hasteko egun gutxi falta badira ere, Alegiako Kultura Batzordea lan eta lan ari da. Herriko hainbat eragilarekin elkarlanean, festak hasi aurretik zubi lana egingo duen ekitaldi sorta antolatu du ostiralean hasi eta uztailaren 9ra bitarte. Antzerkiak, musikak eta kirolak hartuko ditu herriko txokoak.

Ostiralean, uztailaren 1ean, Arteola taldearen eskutik *Frontona* kale antzerkia ikusteko aukera izango da, 20:00etan hasita, Kalebeherako parkean. Kultura herrigunera eraman eta kulturarekiko interesa pizteko helburuz sortutako ikuskizuna da *Frontona*. Hurrengo egunean, uztailaren 2an, herriko musikarien txanda izango da. Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek kontzertua eskainiko dute herritarren aurrean. 20:00etatik aurrera izango da kontzertua, elizan.

San Fermin eguna ere haurrei begirako ekitaldi batekin osatu

dute. *Chef Nature* antzerkia eskainiko da, 19:00etan, eskolako patioan. Markeliñe taldeak aire zabaleko jatetxe batean kokatuko ditu ikusleak, naturarekin konektatuz. Bukatzeko, uztailaren 9an, larunbatean, kirolaren txanda izango da. 3x3 Saskibaloia txapelketa jokatu da eskolako patioan. 09:00etan eta 13:00etara bitarte ariko dira, eta txapelketa hori infantil eta kadete mailetakoz gaztetxoentzat izango da.

ETXERA BIDEAN LAGUNTZA

Aurten ere Alegiako festetan gauez etxera laguntzeko zerbitzua eskainiko da udalaren eta Eztanda talde feministaren arteko elkarlanari esker. Asteazken gauek hasi eta larunbat gauera bitartean eskainiko da zerbitzua eta etxera laguntzen ariko diren talde horietan parte hartu nahi duten emakumeek uztailaren 8ra bitarte eman dezakete izena kultur etxean. 943 65 46 98 zenbakira deituta edo *kultura@alegia.eus* helbidera idatzita.

Batez besteko birziklatze tasa hiru puntutan gainditzen du Zizurkilek

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalak hondakin bilketako datuak eman ditu ezagutzera, eta datu «onak» direla esan du, baina oraindik herriko zenbait gunetan herritarrek hondakinak lurrean uzten dituztela gogoratu du. Errefusaren %5 jasotzen dute lurretik, hilean 600 kilo inguru.

Hondakinen bilketa gaika aztertuz gero, Zizurkilen 20.434 kilo organiko jaso zituzten 2022ko maiatzean. Beirari dago-kionez, 10.988 kilo jaso zituzten; 10.524 kilo ontzi arin, 7.776 kilo paper, 1.662 kilo arropa eta 21.295 kilo errefusa. Honenbestez, birziklatze tasa Zizurkilen, %70,87koa da, Tolosaldeko batez

bestekoa baino hiru puntu hobe. %67,33koa da eskualdeko birziklatze tasa.

«BADA ZER ZUZENDU»

Udalak nabarmendu duenez birziklatze datuak bide «onean» doaz, baina badago zer zuzendu. «Herriko zenbait gunetan ohikoa da hondakinak lurrean botata ikustea». Bilketa sistema aldatu aurretik, herrian biltzen zen errefusaren ia %10 lurretik biltzen zela jakinarazi du, eta azken hilabeteotan datuak hobera egin duela azpimarratu du: «Errefusaren %5 jasotzen da lurretik, 600 kilo inguru hilean». Zizurkilgo Udalak herritarrei gogorazi die «erabat galarazita» dagoela hondakinak lurrean uztea.

Eskualdean da udalerri euskaldunetako gazteen udalekua

Salto! udalekuak hasi ziren astelehenean; Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak antolatzen ditu eta astebetzez Etxarri Aranaztik eta Tolosatik Leitzarako bidea egingo dute

Erredakzioa

Leaburu-Txarama

Astelehenean hasi ziren Uemak antolatzen dituen Salto! udalekuak. Udalerri euskaldunetako 15 eta 18 urte arteko 100 bat gazte ari dira parte hartzen eta bi zutabetan abiatu dute egonaldia; Etxarri Aranaztik eta Tolosatik. Gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziazatzea eta eragile aktibo bihurtzea da ekimenaren helburua, eta horretarako egitarau oparoa antolatu du Uemak, udalekin eta hezitzaile taldearekin batera.

Astelehenean Tolosatik abiatutako zutabeari udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak egin zioten ongi etorria eta herrian bisita gidatua izan zuten. Etxarri Aranazkoei ere udalak eta euskara batzordeak egin zien harrera.

Tolosaldean gaur arte egongo dira. Tolosa eta Alkiza artean eman zuten astelehena, atzo Leaburu-Txaraman izan ziren eta bihar Berastegin izango dira. Ostiralean iritsiko dira Leitzara.

Salto! udalekuak Uemaren ekimena diren arren, beste zenbait erakunde publikoren lankidetzak eta laguntza izaten du. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu du topaketa, beste behin ere. Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzetan «uda-



Udalak eta txistulariek egin zieten ongi etorria atzo, gazteei Leaburun. I. SAIZAR

lerri euskaldunek eta euskararen arnaguneek normalizazio prozesuan berebiziko garrantzia dute, eta baita udalerri hauek zaintzeko berariazko hizkuntza politikek ere. Ildo horretan Uemak egiten duen lana eta sozio-linguistika edukiak gazteen artean zabaltzea giltzarria da».

Goizane Arana Uemako teknikariak eta udalekuen arduradunak esan du ezagutzaren eta erabileraren arteko koska leuntzeko, ezinbestekoa dela kontzientziazioa. «Argi ikusten dute hori guztiek eta, beraz, baita topaketa hauek antolatzeko behar dugun laguntza eskaini ere».

Udan bi ekimen jarriko ditu martxan udal liburutegiak

TOLOSA // Udal Liburutegiak *Biblioporrak* eta *Udako liburutegia* ekimenak abiaraziko ditu. *Biblioporrak* 0 eta 16 urte arteko gazteei zuzendua dago. Gida bat da eta bertan adin ziklo bakoitzerako liburu gomendagarriak jaso dituzte. Errota eraikineko 3. solairuan egongo da irailaren 30era arte. *Udako liburutegia* kiroldegian egongo da uztailearen 4tik irailaren 9ra arte, 15:00etatik 19:00etara.

Bihar da Bitartekari Klubean izena emateko azken eguna

IBARRA // Bitartekari Kluba hamabostean behin elkartzen da eta Imanol Merceroren laguntzarekin haurrengan eta gazteengan irakurzaletasuna sustatzea du helburu. Bihar da datoreen ikasturteko klubean izena emateko azken eguna eta ibarraeuskaraz@gmail.com helbidera idatzi behar da izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefonoa zehaztuz. Gutxienez 8 laguneko taldea sortu behar da.



Hesia margotzen atzo, Villabonan. J.M.

LGTBI+ kolektiboaren egunarekin bat

LGTBI+ EGUNA // Ekainaren 28a sexu eta genero askapenaren nazioarteko eguna izanik, eskualdeko udalek bat egin dute LGTBI+ komunitatearen aldarrikapenekin. Anoetan, esaterako, moztio bat onartu dute, eta Tolosan adierazpen bateratua kale-ratu dute udaleko talde politikoek. Bestalde, Villabonan Lurgatz Asanblada Feministak eta Akain Talde Feministak deituta kiroldegiko hesia margotu dute.

Udako ordutegiak liburutegietan

GIZARTEA // Anoetako eta Ibarra-ko liburutegietan udako ordutegia ezarri dute. Anoetan astelehenean 16:30etik 19:30era egongo da zabalik eta asteartetik ostiralera, berriz, 11:00etatik 13:30era. Abuztuaren 1etik 21era itxita egongo da. Ibarran uztailearen 29ra goizez zabalduko dute, 09:00etatik 14:00etara, eta asteazkenetan 09:00etatik 16:00etara. Eta abuztuaren 1etik irailaren 2ra itxita egongo da.

Irurarrak Munduan postal lehiaketa antolatu dute

IRURA // Lehiaketan parte hartzeko ekainaren 15etik irailaren 15era arteko zigiludun postalak bidali behar dira Irura Bizi elkartera: Pello Arrese Kalea, 1. Saridunak San Migel egunean egingo den zozketan erabakiko dira. 14 urte azpikoaren artean sari bat banatuko dute eta gainontzekoek bi lagunentzat nekazalturismo batean gau bat eta gosaria irabazi dezakete. Postalak euskaraz idatzi behar dira.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu

Sanpedroak atejoka

Asteasun, Leaburun, Urkizun eta Larraitzen ospatuko dituzte festak egunotan; igandera bitarteko jai egitarauak prestatu dituzte herrietan eta auzoetan

Erredakzioa

Hasi dituzte San Pedro jaiak Asteasun. Atzo arratsaldean lagun arteko herri kirol lehiaren ondotik, Joxe Angel Sarasola herritarrak piztu zuen jaien hasierako suziria eta sorginaren jaitsierarekin hasiera eman zieten festei. Gaur izango dute egun handia, eta meza ondorenean, dantza-soka egingo dute Elizmendin. Aurten 25 urte inguru dira, urteetan galduta egon zen tradizioa berreskuratzen hasi zirela. 2018an parte hartu zuten emakumeek lehen aldiz dantza-sokan eta aurten ere ekitaldi jendetsua izatea espero dute.

San Pedro eguna dute gaur Asteasun, bihar erretiratuen eguna ospatuko dute, etzi kuadrillena eta etzidamu haurrena. Igandean haurren mozorro egunarekin amaituko dute jai egitaraua.



Atzo, txupinazoaren eta sorginaren jaitsieraren aurretik, lagunarteko herri kirol lehia egin zuten Asteasun. ENERITZ MAIZ

Leaburun ere hasita daude sanpedroak ospatzen. Igandean, erretiratuen eta pentsiodunen eguna ospatu zuten eta atzo, barrikotea eta sardina jatea egin zituzten plazan. Gaur, jaien egun handian, mezaren ondoren hamaiketako banatuko zaie herritarrei ostatuan eta arratsaldean, umeentzako jolasak eta ondoren txokolatea izango dira. Biharko eguna atsedenerako utzi ondoren, ostiraletik igandera jarraituko du festak Leaburun.

Tolosako Urkizu auzoan atzo iluntzean suziriak bota eta festa hasi zuten iluntzean. Gaur, San Pedro egunez, ohiturazko hamaiketako egingo dute auzo elkarteetan. Asteburuan egingo dituzte bertan jaietako ekitaldi nagusiak. Eta, Larraitzen, berriz, San Pedro eguneko ospakizunak igandean egingo dituzte.

SANPEDROAK

Asteasu

Ekainak 29, gaur San Pedro eguna
10:00. Diana.
11:00. Meza nagusia, eta ondoren dantza-soka eta hamaiketako.
12:30. Pilota eskolako alebin eta benjaminen finalak.
18:00. Kalejira: herri trikitilariak, txistulariak eta koroa. Asteasu eta Zizurkilgo erraldoi eta buruhandiak.
21:30. Txintxon eta Mus txapelketa (21:30etik 21:55era izen emateak. Bikotekideetako batek gutxienez Asteasun errolatuta egon beharko du).
22:30. Bakarrikzeta: *Nekatutak*, Antton Telleriarekin.

Ekainak 30, osteguna Erretiratuen eguna
10:00. Haurrentzat 8 froga, 8 buruhauste, herriko gazteek antolatuta.
11:00. Meza, eta ondoren, hamaiketako Aiztondo elkarteetan.
13:00. Herri kirolak: Aizkolariak: Ugaitz Mugerza eta Julen Alberdi *Txikia*. Harri-jasotzaileak: Lierni Ossa, Lur Errekondo, Mikel Lopetegi *Urra* eta Aimar Irigoien.
14:30. Herriko erretiratuen bazkaria. Bertsotan Millan Telleria eta

Sebastian Lizaso, eta trikitiarekin, Izer eta Alabier.
17:30. Gazte-olinpiadak kuadrillen artean, plazan.
18:00. Trikitixa eta pandero eskolaren musika emanaldia.
22:30. Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Haritz Mujika, Jexux Mari Irazu eta Nerea Ibartzabal. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

Uztailak 1, ostirala Kuadrillen eguna
10:00. Zirku tailerra haurrentzat Lamiategin.
11:30. Ur festa Lamiategin.
13:00. Ikurrinaren aldeko ekitaldia.
14:30. Kuadrillen arteko bazkaria.
17:00. Poneyak eta zezen txikiak.
18:30. Distopiaren emanaldia plazan.
22:00. Zezen suzkoa eta ondoren kontzertua: Gabezin.

Uztailak 2, larunbata Haurren eguna
10:00. Herriko haurrentzako jolas eta lehiaketak: marrazkiak, ipuina, xakea, krosa...
12:00-14:00. Puzgarriak.
Ondoren. Haurren bazkaria eta dantza ikuskizuna.
15:00-17:00. Puzgarriak.
18:00. Tortilla lehiaketa.

18:30. Sagardo dastaketa, herriko elektrotxarangekin.
22:00. Musika: Anker eta Gozategi.

Uztailak 3, igandea.
11:00. Herriko bertsolarien emanaldia.
12:00. Tio Teronen semeak taldearen ikuskizuna
17:00. Pilota partidak: Larrarte-Erasun/Garai-Agirre Labaka-Urruzola/Urbietza-Aizpuru
19:00. Erromeria: Orkestrina Band Jazpana
21:00. Sorginaren igoera.

Leaburu

Ekainak 29, gaur
Meza eta jarraian hamaiketako herritarrentzat ostatuan.
17:00. Umeentzat jolasak eta ondoren txokolatea.
19:00. Futbito.

Uztailak 1, ostirala.
17:00. Tortilla patata lehiaketa (bikoteka izango da eta norberak zartagina eraman beharko du).
19:00. Pintxo potea. Lehiaketako tortillen dastaketa.
21:00. Oinargi eta herriko dantzarien emanaldia.
Jarraian. Musika balio anitzeko gelan.

Uztailak 2, larunbata.
17:00. Frontenis txapelketa.
21:00. Herri afaria eta bingoa.
Ondoren. Skapaie elektrotxaranga.
01:00. Musika balio anitzeko lokalean goizaldera arte.

Uztailak 3, igandea.
11:30. Perli eta koxkolo pailazo konpainiak ipuin musikala eskainiko du.
12:00. Txakolin eta pintxo dastaketa.
17:30. Herri kirolak. Aizkolariak: Iñaki Azurmendi eta Unai Zabala, Anjel Arrospide eta Ugarteburu beteranoen aurka. Herriko gazteen pentatloia: koxkolak, korrika, trontza, soka saltoa eta txingak. Koxkola biltzen: Lorea Ibañez Eneko Orbegozoren aurka. Korrika: Arrospide ahizpak elkarren aurka. Trontzan: Oier Orbegoza eta Iñaki Arrizabalaga, Oiñan eta Amañur Arrospide anaien aurka. Txingatan: Zubia anaiak Ugartemendia anaien aurka. Soka saltoan: Larreta ahizpak elkarren aurka.
21:30. *Bonba bat naiz* antzerkia.

Urkizu

Ekainak 29, gaur San Pedro Eguna
11:00. Meza nagusia.
11:45. Hamaiketako elkarteetan.

Uztailak 1, ostirala.
21:30. Mus txapelketa.

Uztailak 2, larunbata. Umeen eguna eta Auzo afaria.
11:30. Umeentzako jolasak.
14:00. Umeen bazkaria.
21:00. Auzo afaria, trikitilariak alaiturik.

Uztailak 3, igandea.
11:00. Sagardo eta patata tortilla lehiaketa.
12:00. Sari banaketa eta dastaketa.
18:00. Umeen jolasak.
18:00. Bolo eta toka txapelketa.
19:00. Txokolatada.

Larraitz

Uztailak 3, igandea San Pedro eguneko ospakizuna Larraitzen
12:30. Meza Nagusia.
Ondoren. Hamaiketako eta trikitilariak.
Arratsaldean. Trikitia iluntzera arte.

Asteasun indarkeri matxistari aurre



San Pedro jaietan indarkeria matxistari eta sexu erasoei aurre egiteko neurriak hartuko dituzte aurten Asteasun. Gai honekiko arduraz jokatzeko deia luzatu diete herritarrei Erratzuz gazte taldeko kideek: «Guztion ardura da Asteasuko festak denontzat izatea, denok libre disfrutatu ahal izatea». Aurten, prebentzioan jarri nahi dute indarra, Asteasu gune segurua izan dadin, eta erasoren bat gertatuko balitz, biktima bakarrik senti ez dadin.

«Akusatzea ez da ligatzea. Animatzeko zaituztegu ligatzeko eremu segurua izan dadin festa gunea, non denok libre eta eroso sentituko garen, nahi dugun pertsonarengana hurbiltzeko, proposatzeko, limurtzeko, eta noski, proposamenei libreki baieztatzeko edo ezeztatzeko erantzuteko. Presiorik gabe, xantaiarik gabe eta indarkeriarik gabe», esan dute Erratzuz taldeko kideek.

2019an herriko gazte talde bat elkartu zen indarkeriaren gaia lantzeko. Taldearen dinamikaren emaitza nagusia San Pedro jaietako indarkeria matxistaren kontrako protokoloa izan zen. «Festetako egun nagusietan txandak egin genituen, erasoak emanez gero aurre egiten laguntzeko. Herritarrei protokoloa banatu eta inplikazioa bultzatzeko *Ni ere prest* leloa zeramaten txapak banatu genituen. Tabernari eta txosna-koak ere inplikatu genituen lan- ketan». Esperientziaren balorazio «oso positiboa» egin zuten gazte-ek behin festak bukatuta: «Hiru egoeretan esku-hartu behar izan genuen eta eremu seguru bat sortu izanaren sententzia izan genuen; herritarrak inplikatu ziren».

PROTOKOLOA MARTXAN

Pandemiagatik bi urtetan festarik antolatu gabe egon ondoren, Asteasuko Udala aurten berriro jarri

da harremanetan Erratzuzen ari- tutakoekin eta baita emakume taldekoekin ere. Taldetxo batean herriko gazteak elkartu eta gai honi heldu diote azkeneko hila- beteetan. Prebentzioan jarriko dute indarra aurtengoan eta ho- rretarako sentsibilizazio tailerrak antolatuko dituzte. Bata gaztetxo- en gurasoentzat prestatu dute eta beste bi izango dira, sexuka bana- tuta, bata gizonezkoentzat eta bestea emakumezkoentzat. «Gar- rantzitsua iruditzen zaigu denon kontua dela jabetzea eta gizonek ere gai honen inguruko ardurak hartzea», esan dute gazteek.

Protokoloa jaietako egitaraua- rekin batera banatu dute egunot- an, etxez etxe. Bertan, eraso bat gertatuko balitz jarraitu beharre- ko pausoak azaltzen dira, eta adi- tzeraz ematen da festek iraute- n bitartean telefono bat egongo dela martxan. Gainera festak hasi aurreko egunetan, ta- bernari eta txosnako arduradune- kin hitz egin dute gazteek, berri- ro ere protokoloan bildutako puntu nagusienak azaltzeko. Herritarrei bestalde, 2019an bezala, *Ni ere prest* esaten duten txapak jartze- ko deia luzatu diete.

Asteasuko Udalaren izenean Pili Legarra alkateak eskerrak eman dizkie herriko gazteei, «in- plikazioagatik eta antolatutako ekimenagatik». Tabernari eta he- rriko txosnako arduradunekin gogoratu da alkatea eta haiei ere eskerrak eman dizkie. «Lanketa hau aurrera urrats bat da, eta pau- so hori eman ahal izan da, herri ekimenak eta udalak bat egin du- telako». Legarrak aurreratu du in- dakeria egoerak kudeatzeko eta horien aurrean biktimaren arreta eta erantzun publikoa antolatze- ko prozesu bat jarriko duela uda- lak martxan irailetik aurrera. «Prozesu horretan herritarren ahotsa ere garrantzitsua izango da», esan du alkateak.

Amarotzen prest dira auzotarrak festei hasiera emateko

Ostiralean hasi eta igandera bitarte luzatuko dira Amarotz auzoko festak; ohiko gastronomia lehiaketaz eta dantza eta musika saioez gain, flashmob-a egingo dute lehen egunean



Amarotz auzoko gazteak 2018ko auzoko festen lehen egunean. MIKEL IRAOLA

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Mugimendu handia nabari da azken egun hauetan Amarotz auzoan. Pasa den asteazkenean, auzoko botikin berriaren inau- gurazioa izan zen. San Joan bez- pera ospatzearekin batera, pata- ta tortilla txapelketa egin zuten auzoan, eta biharamunean, au- zoko eskopetari konpainiak To- losako San Joan eguneko alarde- an parte hartu zuen.

Aste honetan, jai giroan jarrai- tzen dute auzoan. Astelehenean abiatu zen Amaroazko 24. Antzer- ki Astea, eta gaur, Akerbeltz es- peleo taldeko kide zen Iñaki Alonso *Indio* omenduko dute. Antzerki astea azken emanal- diek, gainera, bat egingo dute os- tiralean abiatuko diren auzoko festekin. Hiru egunez, hamaika ekitaldi izango dira auzoan. Guz- tien artean nabarmentzekoa da igandeko danborrada, 2018an berreskuratu baitzuten. Gaur egingo dute azken entsegua, 19:00etan, txarangarekin.

EGITARAUA

Uztailak 1, ostirala

- 16:00.** Jaien hasiera iragartzeko suziria eta buruhandiak.
- 16:30.** Haurrentzako jolasak festagunean.
- 18:00.** Flashmob-a *Auzoa bizirik* lemapean eta Beti Gazteak lokalean karta-jokoen finalak: eskoba, seikoa, txintxon eta punttua.
- 18:30.** CIA Kikirkeren eskutik *Souvenirs* kale ikuskizuna eta ondoren txokolateta Itun-txulo elkartek prestatuta.
- 19:30.** Tolosako Udal Musika Bandaren kontzertua.
- 20:30.** Auzo poteoa.
- 21:30.** Mozorro gaua: Auzo afaria eta ondoren, DJ XA2 goizaldera arte.

Uztailak 2, larunbata

- 10:00.** Diana Konpenezin txarangarekin.
- 10:30.** Haurrentzako puzgarriak eta jolasak.
- 12:00.** Ajoarriero lehiaketa.
- 12:30.** Bapatean zirko tailerraren eskutik *Adabaki* ikuskizuna.

- 14:30.** Ajoarriero lehiaketako sari banaketa eta auzo bazkaria.
- 15:30.** Haurrentzako puzgarriak eta jolasak.
- 16:00.** Auzokoentzat mus txapelketa.
- 17:00.** Umeentzako mahai tenis txapelketa.
- 18:30.** Sagardo dastaketa.
- 21:30.** Parrillada.
- 23:30.** Muxutruk erromeri taldea.

Uztailak 3, igandea

- 09:30.** Diana Tolosako Udal Txistulari Bandarekin.
- 11:00.** Auzoko *Encaje de bolillo* erakusketa.
- 12:00.** Auzoko danborrada Konpon- ezinak txarangaren laguntzarekin.
- 14:30.** Auzo bazkaria Konpenezin txarangak girotuta eta karta-jokoen sari banaketa.
- 18:00.** Aureskua.
- 18:30.** Toka txapelketa.
- 20:00.** Sardina jatea eta DJ XA2.
- 22:30.** Suziria festei amaiera emanez eta sardinaren hileta.

Asier Imaz

Markel Perez Etxarri (Irura, 2003) perkusio-jotzailea larunbatean joan zen Salzburgora (Austria) eta abuztuaren 21a bertan bertan egongo da. Gustav Mahler Jugendorchester munduko entzutetsuenekoa eta onenetakoa da ikasle gazteen orkestren artean, eta bertako musikariekin batera Salzburgon ospatuko den jaialdian parte hartuko du. Irurarrak erdi mailako ikasketak amaitu berri ditu Musikenen.

Espero zenuen Austriara eramango zintuen deia?

Egia esan ez. Urrian egin nituen frogak Amsterdamera joanda, eta otsaila aldera edo jakinarazi zidaten musikarien poltsan edo zerrendan egongo nintzela. Baina jada atera zuten zein musikari joango ziren, eta ni ordezkoen zerrendan sartu nindutenez udara guztirako plan batzuk eginak nituen. Baina, justu, ekainaren 13an deitu zidaten batek baja hartu zuela esanez, eta uda honetan joan bere plaza betetzea eskaini zidaten. Beraz, plan guztiak bertan behera utzi behar izan nituen, eta orkestrarekin joan naiz.

Gazteen orkestran ariko zara.

Bai. Gustav Mahler Jugendorchester Europako orkestra bat da, eta Vienan du egoitza.

Europa guztiko musikariekin osatua da.

Hori da. Musikari gazteen orkestra da. 27-30 urte arteko musikariak biltzen ditu.

Mundu mailako ospea duena, ezta?

Bai. Hori eta Europako Gazte Orkestra deitzen den beste bat daude. Nik uste dut horiek biak direla oraintxe bertan ezagunenak direnak.

Zehazki zertara zoaz Austriara?

Orkestra asko joaten diren jaialdi bat da Salzburgokoa: Berlin, Viena,... Opera produkzio bat egingo dugu, eta uste dut sei kontzertu egingo ditugula. Eta jaialdiari hasiera emango dion irekiera kontzertua ere bai.

Udako asmoak aldatu behar izan dituzula esan duzu. Garbi izan zenuen edo bi aldiz pentsatu behar izan zenuen erabakia hartzeko?

Oso garbi neukan eta jada irakasle guztiekin eta jende guztiarekin hitz egin nuen deituz gero beraiekin joango nintzela. Baina, beste aldetik, pena handia eman dit, zeren Euskadiko Gazte Orkestrarekin, Kataluniako Gazte Orkestrarekin eta Kanariar Uharteetako Gazte Orkestrare-



JON MIRANDA

«Udako planak bertan behera utzi behar izan ditut Austriara joateko»

MARKEL PEREZ ETXARRI MUSIKARIA

Musikenen ari da perkusio ikasketak egiten Markel Perez irurarra, eta bi hilabetetarako Austriako Gustav Mahler Jugendorchester gazte orkestrara joan da; Europa mailako musikariekin osatua da orkestra.

kin kontzertuak nituen. Orduan, jendeari deitu behar izan diot nire ordezkari joateko.

Perkusio-jotzailea zara. Noiztik da zure pasio hau kasik ofizio?

Perkusioa kontuan hartuta nahikoa berandu hasi nintzen. Ni Loatzon musika eskolan hasi nintzen bateriarekin, eta hamabi bat urte izan arte ez nintzen perkusioarekin hasi. Francisco Escudero Kontserbatorioan hasi nintzen.

Froga pasa behar izan zenuen kontserbatorioan sartzeko?

Bai. Bateria *hobby* moduan jotzen nuen, baina kaxako teknika azkenean bera da; bateria perkusio instrumentu bat da. Orain Musikenen nago duela bi urte, eta hirugarren mailara pasako naiz. Hor jada argi uzten dizute bateria jazz edo moderno espezialitatea, edo bestela perkusio sinfonikoa.

Zuk bigarrena aukeratu duzu?

Hori da, perkusio sinfonikoan nago ni.

Nola irudikatzen da bateria musika talde batean eta perkusioa orkestran?

Bai. Bakoitzak ibilbide ezberdinak ditu. Bateriarekin talde bateko parte izan zaitezke; jazz, esaterako. Jazzean musika moderno ere lantzen da, eta estilo ezberdinak daude. Aldiz, perkusio klasiko sinfonikoan orkestrarako irtenbidea dago; mundu garaikideago batean bakarlarri moduan aritzen dira, edo perkusio talde bat edo Zukan hirukoa, hau da, txistua, akordeoia eta perkusioa. Horrelako *ensemble* garaikideak ere posible dira, eta irtenbide ezberdinak daude. Eta irakasle moduan ere ateratzen da jendea.

Loatzon musika ikasten hasi zinenen pentsatzen zenuen ibilbide hau egingo zenuenik?

Ez, inondik inora. Ni bateria ikasten zerbait probatzeagatik

hasi nintzen. Herriko kontzertuetan taldeak ikusten nituenean rock edo beste edozein talde izan, bateriak beti atentzioa eman izan dit.

Herriko festetan taldeei begira zeuden garaian esan izan balizute orkestra batean bukatuko zenuela.

Nik orduan oraindik ez nekien orkestra bat zer zen ere.

Austriara joateko froga pasa behar izan zenuen. Nolakoa izaten dira frogak horiek?

Nahiko gogorrak. Azkenean, froga baino pare bat hilabete lehenago bidaltzen dizute erreperitorio bat edo frogaren arabera hilabete lehenago izan daiteke. Eta perkusioaren kasuan instrumentu ezberdinak ikasi behar dituzu; gure kasuan, xilofonoa, kaxa, pandereta, platerak, tinba-

«Musikenen karrera amaitu behar dut, eta hortik aurrera, ez dakit ziur zein ibilbide egin nahi dudan»

lak... pixka bat denetik eskatu zigituen. Behin frogara iristean, pasarte bat instrumentu batekin jotzeko eskatzen dizute. Kamara bat dago zuri grabatzen, eta tribunaleko espezialista bat eta proiektuko koordinazioko bi pertsona dituzu. Bakarrik zaude beraien aurrean. Galderak egiten dizkizute, eta eskatzen dizutena jo behar diezu.

Ez du egoera goxoaren itxurarik?

Ez da, baina normalean jendea nahiko jatorra izaten da. Nire kasuan nahiko ondo portatu ziren, baina batzuetan ez da horrela izaten.

Eta behin esperientzia hau bizita, aurrera begira zein bide izango duzu?

Gazte orkestra izanda, ez da orkestra profesionaletan bezala, behin plaza atera eta zure plaza finkoa duzula. Orkestra honetan urtero egin behar da froga, eta urri aldera berriz ere froga egin beharko dut jarraitu nahi baldin badut.

Zenbat urte geratzen zaizkizu oraindik?

19 egin berri ditut, beraz, 32 urteak bete bitarte denbora daukat.

Baina hurrengo jauzia profesionaletara izango litzateke.

Bai. Lehenengo bi urte geratzen zaizkit eta Musikenen karrera amaitu behar dut. Hortik aurrera jada ez dakit master bat egingo dudanez edo ez. Edo orkestra frogak. Oraindik ez dakit ziur zein ibilbide egin nahi dudanez, baina printzipioz orkestra frogak egiten hasiko naiz.

«Ea errepikatu ahal dudan pista estalian lortutakoa»

JOSEBA LARRAURI ATLETA

Atleta irurarra denboraldi bikaina egiten ari da, markak hobetuz eta dominak eskuratuz; bi astera du hurrengo erronka nagusia

Imanol Garcia Landa Irura


Bere denboraldi onena egiten ari da Joseba Larrauri (Irura, 2002) Tolosa CF-ko atleta. Asteburuan absolutu mailako Espainiako Txapelketan bi probetan aritu zen. 100 metrokoan 10.62 egin zuen, Tolosa CF-ko marka ezarri eta Gipuzkoako 23 urtez azpikoa berdinuz. Horrez gain, Real Sociedad taldearekin 4x100 metrokoetan parte hartu zuen eta brontzezko domina irabazteaz gain, Gipuzkoako marka ezarri zuten 40.44 markarekin.

Nola joan da izan berri den Espainiako Txapelketa?

Oso pozik nago lortutakoarekin. Nire helburua marka pertsonala hobetzea zen, eta hori lortzearekin batera, Gipuzkoako 23 urtez azpiko marka berdindu dut. Bestalde, 4x100 metroetako marka eta postua ez genuen espero, eta oso kontentu. Espero nuena baino hobeto.

100 metroetan 10.62raino iristea espero zenuen? Eta noraino iristea espero duzu?

Entrenamenduak ondo ateratzen ari dira, eta entrenatzailearekin hitz egiten biok badakigu



ATARIA

denbora hobia egin dezakedala. Gauza batzuk zuzendu behar dira oraindik, baina 10.60tik behera egiteko aukera ikusten dugu.

Postuei dagokionez nola izan zen 100 metroko proba?

32 atleta ginen proba horretan, eta nik 30. denbora onena nuen, eta azkenean 19. postua lortu nuen. Ez nintzen finalerdietara

postua lortuz. Maria Felisa Okomo tolosarrak pisu jaurtiketan 13,01 metroko marka eginez 9. postua lortu zuen. Iratxe Martin tolosarrak, ohitura duen bezala, 400 metro hesietan 1.01,49ko marka egin zuen. Julen Martinek 110 metro hesietan parte hartu zuen. Oso ondo ari zen baina 8. hesia gogor jo eta gero desorekatu eta ezin izan zuen lasterketa ondo bukatu. Azkenean 15,10ko marka egin zuen.

Real Sociedad taldearekin bi atleta aritu ziren txapelketan. John Cabang irurarrak laugarren postua

pasa, baina lortutako markarekin oso kontentu geratu naiz.

Atzera begiratuta, denboraldiko beste emaitzarik nabarmenduko zenuke?

Denboraldi hasieratik lehiaketak oso ondo hasi ziren, nire markak hobetuz denbora guztian. Donostian, esaterako, Gipuzkoako absolutu mailako errekorra lortu nuen 200 metroetan, 21.53 markarekin, eta gero, absolutu mailako Espainiako Txapelketan pixka bat jaistea lortu nuen, 21.45 eginez. 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan, berriz, brontzezko domina lortu nuen 200 metroetan. Pista estalian izan dira aipatutako emaitza horiek.

Zure proba onena berez 200 metroak izanik, nolatan ez zenuen asteburuan proba horretan parte hartu?

Absolutu mailakoan bi probetan bakarrik hartu daiteke parte, eta entrenatzailearekin hitz eginda, eta erreleboetan parte hartuko nuen, 100 metroak egitea pentsatu genuen, absolutu maila ez delako nire esanguratsuen. Gero, hemendik bi astera, 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan, 200 metrokoan parte hartuko dut.

Eta txapelketa horretan zein da zure asmoa?

Ea errepikatu ahal dudan pista estalian lortutakoa, baina marka hobetzearekin kontentu egongo nintzateke.

Zer marka duzu, bada, aire librean 200 metrokoan?

21.44 da nire marka, Durangon lortutakoa, Euskadiko Txapelketan absolutu mailan bigarren postua lortu nuenean. Gipuzkoako absolutu mailako marka 21.34 da, eta hori hobetzea da erronka.

Zer gertatu da horrelako denboraldi ona lortzeko?

Egindako lan konstantearen emaitza da. Astero lana egiten, entrenatzen, zaintzen... horrela lortzen dira emaitzak. Ez dago beste sekreturik.

lortu zuen 110 metro hesietan, eta finalerdietan egindako 13,88ko denborarekin 23 urtez azpiko Euskadiko errekorra ezarri zuen. Ander Martinez de Rituerto tolosarrak pertika jauzian min hartu zuen lehenengo saltoan eta nekez saltatu zuen 4,80 metroko lehen altuera, 13. postua eginez.

Atletiko San Sebastian taldeko Maria Lasa irurarrak 800 metroetan parte hartu zuen, eta 2.09 egin zuen finalaurrekoetan. Bere markatik gertu ibili arren ez zuen finalerapasztea lortu.

Gipuzkoako Txapelketan ariko da Mikel Lizartza segalaria

Erredakzioa Tolosa

Gizonezkoen Gipuzkoako Segatxapelketa izango da jokoan igande honetan, uztailaren 3an, Asteasuko Bulano baserriko belardietan. 12:00etan hasiko da norgehiagoka eta sarrerak 10 euro balioko ditu. Mikel Lizartza tolosarrak parte hartuko du eta Julen Gabirondo, Jon Otegi eta Iban Pardo izango ditu aurkari. Ordubeteko saioan belar kilo gehien ebakitzen duenak irabaziko du.

Azken bi sega lehiak irabazi ditu Lizartzak. Batetik, Almitza Segatxarteak antolatutako liga eta baita Segatx Sail Txapelketa ere. «Neronek ere ez nuen espero irabaztea», esan du segalari tolosarrak. «Beti saiatu izan naiz teknika hobetzen, eta aurten aurreapauso bat eman dut». Igandeko txapelketari begira, aurreko urteko emaitza hobetzea eskatzen dio bere buruari, izan ere, kilotan «atzera samar» geratu zela azaldu du.

Altunak Imaz du atzelari eta Jakak Zabaleta, CaixaBank Mastersean

Erredakzioa

Uda honetan ere pilota profesionaleko CaixaBank Masters txapelketa izango da jokoan. Bi enpresetako pilotariak elkar nahastuta jokatu dute oraingoan ere, sei bikote osatuz. Altuna III.ak Imazekin jokatu du eta Jakak Zabaleta izango du atzelari. Beste bikoteak hauek izango dira: Laso-Martija, Urrutikoe-txea-Rezusta, Ezkurdia-Mariez-kurrena II.a eta Irribarria-Albisu.

Ligaxka jokatu dute, bost jardunaldikoa, bikote bakoitza bestearen aurka jokatu. Lehen jardunaldian, eskualdeko bi pilotariak elkarren aurka jokatu dute, uztailaren 17an, Barakaldon. Finalerdiak irailaren 30ean jokatu dira, Nafarroa Arenan, eta finala urriaren 2an izango da, leku berean.

Hiru podium Tolosaldeko Triatloi Taldekoentzat

TRIATLOIA // Euskadiko Esprint Triatloi Txapelketa ospatu berri da Lekeition, eta bertan Tolosaldeko Triatloi Taldeko partaideek «emaitza bikainak» eskuratu dituzte. Elur Urkola gazteak 9. postuan helmugaratzea lortu zuen, junior mailan Euskadiko txapeldunorde geldituz. Beterano mailan, gizonezkoetan Joxean Montoyak Euskadiko txapeldun izatea lortu zuen eta emakumezkoetan Olatz Arregi hirugarren izan zen. Manex Torreal dai taldekide berria ere bertan izan zen maila ona erakutsiz.

Ioseba Mateos zazpigarren sailkatu da Batalla de Randen

IBARRA // X. Batalla de Rande itsas zeharkaldian Ioseba Mateos igerilari ibartarra zazpigarren izan da gizonezkoen absolutu mailan. Probaren lehenengo 14 kilometroak neutralizatuak izan ziren eta azkeneko 13 kilometroak libre igerilari bakoitza bere erritmoan igeri egiteko. «Zeharkaldi guztian zehar haize asko egin zuen eta infernu bat izan zen. Aurreikuspena bete zen eta oso zaila izan zen baldintza horietan igeri egitea, oso gogorra egin zitzaidan edizio hau», esan du Mateosek. Aurtengoan 6.24.29ko denborarekin oso pozik bukatu du: «Igerilarien maila ikusita nire denbora osoa 12 minutuan jaitسي dut».

Larrarte eta Erasun ez dira pasa San Fermin Torneoko finalera

PILOTA // Miren Larrarte bidaniarrak eta Itxaso Erasun zizurkildarrak ezin izan dute San Fermin Torneoko finalerako sailkatu. Amaia Aldai eta Ane Mendiburu bikotearen aurka 22-7 galdu zuten Tafallan jokaturako finalerdia. Aldaik berriro erakutsi zuen, gaur-gaurkoz, aurreko koadroetako erreferentzia nagusia dela eta finalerdian oztopo gaindiezina izan zen Larrarte eta Erasunentzat. Dimako aurrelariak min handia egin zuen sakearekin, pilotakada oso luzeekin, eta 9. koadrotik erantzun behar izan zuen Erasunek. Zizurkildarrak arazoak izan zituen erretoetan eta Larrartek ezer gutxi egin ahal izan zuen Aldairen joko oldearen aurrean.

JOHN CABANG, LAUGARREN 110 METRO HESIETAN

Joseba Larrauriz gain eskualdeko beste hainbat atleta izan ziren Espainiako Txapelketan, horietatik lau Tolosa CF taldekoak. Nora Ituarte ibartarrak 200 metrotan 24.89ko marka egin zuen. Horrez gain, 4x100metroko proban Atletiko San Sebastian taldearekin aritu zen, 46.64ko markarekin laugarren



ASTEAZKENA, 2022KO EKAINAK 29
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 29

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Alkatea bai esan? egitas-moa, 12:00etan, udaletxean.
Irura. Zarata audiodigida, kulturunean, 16:30ean. LGBTI+ kolektiboaren parte diren hamar euskal artisten ahotsak entzungo dira.
Berastegi. Salto! udaleku ibiltariko parte hartzaileak Berastegiko gazteekin elkartuko dira, 16:30ean.
Tolosa. Mugi Tolosa, Zerkausitik 10:30ean abiatuta.
Tolosa. 24. Amarozko Antzerki Astea: 11:00. *Mila esker, Indio!* hitzaldia, Auzo-etxean. 16:30. Kale ikuskizuna Akerbeltz espeleo taldearekin, Amaia Covillarrekin eta Montse Solidarios taldearekin, umeentzat. 17:30. Zirkozaurren *Zirko tailerra* kale ikuskizuna, umeentzat. 20:00. *Ama-alu-lur* ikuskizuna, helduentzat.

San Pedro jaia

Asteasu, Leaburu-Txarama eta Tolosa. Ikus egitarauak 4-5 orrietan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Desafioa. Herri kirolak, Joxe Anjel Sarasolarekin.
16:00. Zehrabidea. Magazina.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

08:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldetik

16:30. Arrasateko sanjoanetako lehenengo entzierroa osorik
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Denbora da poligrafo bakarra (2013)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi, 6. Telefono zenbakia: 943 67 5118.
TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefono zenbakia: 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Okerrera egingo du. Goizean hodeiak eta ostarrateak izango dira, baina giroa lasaia izango da. Eguerditik aurrera zerua estalirik geratuko da eta tarteka euri zaparrada txiki batzuk izango dira. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak behera egingo du, 21-22 graduan joz goia.

Bihar. Giro kaxkarra. Egun osoan zehar zerua estalita egongo da eta tarteka euri zaparrada txiki batzuk botako ditu. Azken orduetan atertzera egingo du. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta tenperaturak koska polita behera egingo du 16-18 graduan joz goia.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

'Ataria'-ren materiala eskura, larunbatean

Tolosako Trianguloa plazan postua jarriko du 'Tolosaldeko Ataria'-k, eta materiala erosteaz gain harpidetza egin ahalko da

Erredakzioa Tolosa

ATARIA-ren material berrira eskura izango da larunbat goizean Tolosako Trianguloa plazan. Izan ere, postu bat jarriko du Tolosaldeko komunikabideak bertan, eta herritarrek material berria bertatik bertara ikusi eta erosteko aukera izango dute.

Berriki aurkeztu du ATARIA-k Maria Altuna zizurkildar artistak *Uhinen dardaraz sustraiak erro-tu* leloarekin diseinatu dituen katiluak, botilak eta poltsak. Katilua Atarikideek 9 euroan eskura dezakete, eta Atarikide ez direnek 11 euroan. Botila ere 9 euroan eskura dezakete Atarikideek eta 11 euroan ez direnek. Poltsak, berriak, 8 euroan eros ditzakete Atarikideek eta 10 euroan gainerakoek. Sorta osoa, hau da, katilua, botila eta poltsa 20 euroan eskuratu dezakete Atarikideek eta 26 euroan gainerakoek. Larunbatean Trianguloa plazara gerturatu ezin dutenek ATARIA-k Tolosako San Esteban auzoan duen egoitzan bertan eskuratu dezakete materiala astelehentik ostirakera goizez nahiz arratsaldean.

HARPIDETZA MERKEAGO

Materiala erosteaz gain, ATARIA-k dituen harpidetza mota desberdinez informazioa jaso eta



Botilak, katiluak eta poltsak daude aukeran. M.G.

Atarikide egiteko aukera izango da larunbatean Trianguloa plazan. Orain gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailari esker, ATARIA-ko harpidetza prezio murriztuan eskuratu daiteke. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina abian jarri du aldundiko Kultura sailak eta kanpaina horretako diru partida bat tokiko hedabideen harpidetzak sustatzera bideratuko du, Tolosaldeko ATARIA-ko harpidetzak tarteko.

Bada, ATARIA-ko jarraitzaileek 15 euroko bonu hauek erabili ahal izango dituzte eta horiei es-

ker ATARIA-ko 2022ko harpidetza prezio murriztuan eskuratuko dute: ATARIA-ko papereko harpidetza 35 euroan eta Atarikide digitala 20 euroan.

Gogoratu era berean, ATARIA-ko harpideek hurrengo urteko errenta aitorpenean onura fiskala jasotzen dutela, ordainduta-koaren %30eko kenkaria izanik.

Izan harpidetza eginez edota materiala erosiz, inoiz baino errazagoa da orain ATARIA-rekin bat egitea, eta ondorioz, Tolosaldeko euskarazko komunikabidea indartsuago egiten laguntzea.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.info

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO ATARIKO MATERIALA!

Deitu
943 65 56 95
edo
pasa bulegotik!

KATILUA
Atarikideak:
9 euro.
Atarikide ez direnak:
11 euro.

BOTILA
Atarikideak:
9 euro.
Atarikide ez direnak:
11 euro.

POLTSA
Atarikideak:
8 euro.
Atarikide ez direnak:
10 euro.

PACK-A
Atarikideak:
20 euro.
Atarikide ez direnak:
26 euro.